

EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIEN IZENDATZEA*

“Urgazle berriak. Araudiaren ildotik eta horretarako ezarritako epea beterik, urgazle berrien izendapenak egin ditu Euskaltzaindiak. Agiri buruan aipatu diren euskaltzainekin batera beste zazpi lagunen idazkiak jaso dira bozketarako ahala ematen: E. Knörr eta L. Mitxelenak, Villasanteri; X. Diharce, J. Hiriart-Urruty jaunek, Lafitteri; J. L. Davant, J. Haritschelhar eta P. Larzabalek, Larreri. Hamabost botz-emaile, beraz, eta gehiengoa osotu da. Honako hemeretzi izen hauek onartu dira: Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Miren Azkarate Villar, Rikardo Badiola Uriarte, Manex Erdozaincy-Etchart, Ana M.^a Etxaide Itharte, Joxe M.^a Etxebarria Lejarraga, Juan Luis Goikoe-txea Arrieta, Bernard Goity, Jon Cortazar Uriarte, M.^a Pilar Lasarte Zubitur, Anjel Lertxundi Esnal, Beñat Oihartzabal, Karlos Otegi Lakuntza, José M.^a Sánchez Carrión, Arantza Urretavizcaya Bejarano, José M.^a Vélez de Mendizabal Azkarraga, Xarlex Videgain, Nicolás Barrenetxea Uribasterra “Aita Julen Yurrekoa” eta Mikel Zalbide Elustondo”.

* Euskaltzaindiaren (1983-IV-28) Batzar Agiritik jasoa.